

## Beste zenbait Xedapen Otras Disposiciones

### KULTURA SAILA

AGINDUA, 1991ko azaroaren 26koa, Kultura Sailburuarena, Eskultura, Margoketa, Grabaketa eta Argazkigintza Modalitateetan, Arte Plastikoetako «Gure Artea» izeneko eta 1991. urteko Sari-emanketa ebatziko duen Epaimahaiko kideak eta Epaimahai horrek emandako ebazpena argitaratu emanez.

9732

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

ORDEN de 26 de noviembre de 1991, del Consejero de Cultura, por la que se hacen públicos la composición del Jurado del Premio de Artes Plásticas «Gure Artea» en las modalidades de Escultura, Pintura, Grabado y Fotografía, edición 1991 y el fallo emitido por el mismo.

9732

## Iragarpenak Anuncios

### Obra eta Zerbitzuen Enkante eta Lehiaketak Subastas y Concursos de Obras y Servicios

### RENTERIAKO UDALA

EDIKTUA, Bidarien Hiri-Garraiorako Herri-Zerbitzua Akuratzeko Ekonomia eta Administraziozko Baldintzen Plegua agerian jarri dela iragartzen duena.

9733

### AYUNTAMIENTO DE RENTERIA

EDICTO por el que se anuncia la exposición al público del Pliego de Condiciones Económico-Administrativas para la Contratación del Servicio Público de Transporte Urbano de Viajeros.

9733

## Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

### HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

3851

681/1991 DEKRETUA, abenduaren 10ekoa, Hirigintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa ezartzeko dena.

Euskal Autonomi Elkartearen Administraziozko Sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituen urriaren 2ko 525/1991 Dekretuz, Autonomi Elkartearen Administrazioa antolatzeke Sailen egituraketa berria egin zen eta, bestek beste, orain arte Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila zenarengan eragina izan du.

Urriaren 2ko 525/1991 aipatu Dekretuko 17. atalean jasotako egitekoak izendatzen zaizkio Hirigintza eta Etxebizitza Sail berriari eta, ondorioz, berori sortzeak antolaketa eredu berria ezartzea beharresten du, administrazioaren ihardunaren gidari izan behar duten eraginkortasun eta koordinazio printzipio konstituzionalak beteko direla bermatzeko.

Horien indarrez, Hirigintza eta Etxebizitza Sailburuak proposatuta, Lehendakariak aurre onarpena eman eta Jaurlearitzaren Kontseiluak 1991ko abenduaren 10eko bilera aztertu eta onartu ondoren, honako hau

### DEPARTAMENTO DE URBANISMO Y VIVIENDA

3851

DECRETO 681/1991, de 10 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Urbanismo y Vivienda.

Por Decreto 525/1991, de 2 de octubre, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se ha procedido a realizar una nueva estructuración de los Departamentos en los que se organiza la Administración de la Comunidad Autónoma que afecta, entre otros, al que hasta esa fecha fue Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.

La creación por tanto, de un nuevo Departamento de Urbanismo y Vivienda, al que se le asignan las funciones recogidas en el artículo 17 del referido Decreto 525/1991, de 2 de octubre, exige el establecimiento de un modelo organizativo que garantice el cumplimiento de los principios constitucionales de eficacia y coordinación que deben guiar la actuación administrativa.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Urbanismo y Vivienda, previa aprobación de la Presidencia y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su reunión del día 10 de diciembre de 1991,

## XEDATU DUT:

## I. ATALBURUA

## SAILAREN EGITURA

## LEHENENGO SAILATALA: ANTOLAKETA OROKORRA

## 1. atala.- Hirigintza eta Etxebizitza Saila.

Urriaren 2ko 525/1991 Dekretuko 17. atalean xedatutakoaren arabera, lurraldearen eta itsasertzen antolaketa, hirigintza, etxebizitza eta arkitektura arloetan ihardutzea eta horiei buruzko egitekoak dagozkion Eusko Jaurlaritzaren organoa da Hirigintza eta Etxebizitza Saila.

## 2. atala.- Egitura.

Aurreko atalean adierazitako gaiei buruzko eskuduntzez baliatzeko, ondorengo organo hauetan egituratzen da Hirigintza eta Etxebizitza Saila:

## Organo Nagusiak:

1.- Sailburua.

2.- Zerbitzu Zuzendaritza.

3.- Etxebizitza eta Arkitektura Sailordetza:

3.1.- Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza.

3.2.- Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritza.

4.- Hirigintza eta Lurralde Antolaketa Sailordetza:

4.1.- Hirigintza Zuzendaritza.

4.2.- Lurralde Antolaketa Zuzendaritza.

## Ordezkoza Organoak:

Hirigintza eta Etxebizitza Sailaren Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak.

## 3. atala.- Atxikipenak.

3.1.- Maiatzaren 31ko 4/1990 Legearekin bat etorriz, Hirigintza eta Etxebizitza Sailari atxikita gelditzen dira Euskal Autonomi Elkarteke Lurralde Antolaketa-rako Batzardea eta Lurralde Antolaketa Aholku Kontseilua.

3.2.- Abuztuaren 30eko 467/1991 Dekretuaren indarrez eraturako Eraikuntzaren Kalitate Kontrolerako Batzardea ere Hirigintza eta Etxebizitza Sailari atxikitzen zaio.

3.3.- Hirigintza eta Etxebizitza Sailari atxikita uzten dira:

a) Abenduaren 20ko 241/1982 Dekretuz eraturako «Promoción y Gestión de Suelo Industriak, S.A./Industria Lurraren Sustapen eta Gestiorako Elkarte, E.A.» Elkarte Publikoa.

b) Otsailaren 6ko 29/1990 Dekretuz aldatutako azaroaren 21eko 258/1989 Dekretuz sortutako «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A./Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» Elkarte Publikoa.

3.4.- Nahitaezko Desjabetzapenerako Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Epaimahaiak Hirigintza eta Etxebizitza Sailari atxikitzen zaizkio.

## BIGARREN SAILATALA: SAILBURUA ETA SAILEKO GOI KARGODUNAK

## 4. atala.- Sailburua.

4.1.- Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981

## DISPONGO:

## CAPITULO I

## ESTRUCTURA DEL DEPARTAMENTO

## SECCION PRIMERA: ORGANIZACION GENERAL

## Artículo 1.- Departamento de Urbanismo y Vivienda.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 17 del Decreto 525/1991, de 2 de octubre, el Departamento de Urbanismo y Vivienda, es el órgano del Gobierno Vasco al que corresponden como áreas de actuación y funciones las de ordenación del territorio y del litoral, urbanismo, vivienda y arquitectura.

## Artículo 2.- Estructura.

Para el ejercicio de las competencias relativas a las materias señaladas en el artículo anterior, el Departamento de Urbanismo y Vivienda se estructura en los siguientes órganos:

## Organos Centrales:

1.- Consejero.

2.- Dirección de Servicios.

3.- Viceconsejería de Vivienda y Arquitectura:

3.1.- Dirección de Vivienda y Arquitectura.

3.2.- Dirección de Planificación y Gestión Financiera.

4.- Viceconsejería de Urbanismo y Ordenación del Territorio:

4.1.- Dirección de Urbanismo.

4.2.- Dirección de Ordenación del Territorio.

## Organos Periféricos:

Delegaciones Territoriales del Departamento de Urbanismo y Vivienda de Alava, Gipuzkoa y Bizkaia.

## Artículo 3.- Adscripciones.

3.1.- Quedan adscritas al Departamento de Urbanismo y Vivienda, de conformidad con la Ley 4/1990, de 31 de mayo, la Comisión de Ordenación Territorial del País Vasco y el Consejo Asesor de Política Territorial.

3.2.- Queda adscrita igualmente, al Departamento de Urbanismo y Vivienda, la Comisión para el Control de Calidad de la Edificación, constituida en virtud de Decreto 467/1991, de 30 de agosto.

3.3.- Quedan adscritas al Departamento de Urbanismo y Vivienda:

a) La Sociedad Pública «Promoción y Gestión de Suelo Industrial, S.A.-Industria Lurraren Sustapen eta Gestiorako Elkarte, E.A.», constituida mediante Decreto 241/1982, de 20 de diciembre.

b) La Sociedad Pública «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A.- Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.», creada mediante Decreto 258/1989, de 21 de noviembre, modificado por Decreto 29/1990, de 6 de febrero.

3.4.- Se adscriben al Departamento de Urbanismo y Vivienda los Jurados Territoriales de Expropiación Forzosa de Alava, Gipuzkoa y Bizkaia.

## SECCION SEGUNDA: EL CONSEJERO Y ALTOS CARGOS DEL DEPARTAMENTO.

## Artículo 4.- Consejero.

4.1.- Corresponde al Consejero del Departamento

**Legeko 26.** atalean ezarritako eskuduntzez baliatzea Hirigintza eta Etxebizitza Sailburuari dagokio, baita urriaren 2ko 525/1991 Dekretuaren arabera Sailari dagozkion egitekoen eta iharduketa-alorren eremukoak izan eta indarrean dagoen legediak egozten dizkion guztiak ere, Saileko beste organoren bati atxikita ez badaude.

**4.2.-** Hirigintza eta Etxebizitza Sailburuak, bere egitekoak zuzen gara ditzan eta bere goren zuzendaritzapean, berak izendatutako Ahokulari eta konfidantzazko beste lanariez osatutako Laguntza Kabinetaeren sorospen teknikoa eta politikoa izango du.

**4.3.-** Agindutako egitekoak zuzen garatzeko, Saileko Organoek emango diete Kabineteko kideei kasu bakoitzean behar duten informazio eta laguntza.

##### **5. atala.-** Sailburuordeak.

Hirigintza eta Etxebizitza Saileko Sailburuordeei, Sailburuaren zuzendaritzapean eta bakoitzari bere ihardun-arloen barruan, honako eskuduntza hauek egotzi zaizkie, Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 30. atalean xedatutakoaretan oinarrituta:

a) Sailordetzaren eta berorren menpeko Organoen ihardunak zuzentzea, koordinatzea, bultzatzea eta ikuskatzea.

b) Sailordetzaren iharduerak programatzea.

c) Bere ihardun-arloetako berezko gaitan, hala behar denean, xedapen orokorren proiektuak prestatzea eta Sailburuari bidaltzea.

d) Bere eskuduntzakoak diren gaiei buruzko erabakiak Sailburuari proposatzea, bidezkoak direla eritziezer gero, gaion izapideak egitea Sailordetzari badagokio.

e) Sailordetzaren menpean dauden zerbitzuek ondo funtziona dezaten beharrezko diren zirkular eta instrukzioak ematea.

f) Beste Sailekiko komunikazio organo gisa ihardutea, baita Sailordetzarekin harremanak dituzten Organismo eta Entitateekiko ere.

g) Sailordetzaren menpeko Zuzendaritza Zentruen eta Organoen iharduera ikuskatzea eta kontrolatzea.

h) Sailordetzaren eskuduntzakoak diren espedienteak izapidetzeko beharrezko diren gastu baimenak ematea, honako baimen hauek salbu: batetik, berrehun milioi pezetatik gorakoak diren urte bete baino gehiagorako gastuei dagozkionak, bestetik, obrak eta horniketarako egiteko espedienteak izapidatzeko beharrezko direnak, hauen aurrekontuak, zergari buruzko zatia kenduta, hurrenez-hurren ehun milioi pezetatik eta hogeitabost milioi pezetatik gorakoak baldin badira, eta azkenik, halaber, sorospen teknikorako, zerbitzu alogerarako, ohizkoak ez diren lan berezi eta konkretuetarako espedienteen baimenak eta administraziozko izaera berezia edo administraziozko izaera pribatua dutenetarako, hauen aurrekontuak, zergari buruzko zatia kenduta, hogeitabost milioi pezetatik gorakoak badira; kasu guzti hauetan Saileko Sailburuari dagokio horietarako baimenak ematea.

i) Sailordetzaren eremukoak diren aurrekontu aldaketak egitea, hauentzako baimena ematea Sailari egotzi bazaio.

j) Indarrean dauden legezko xedapenek ematen diz-

de Urbanismo y Vivienda, el ejercicio de las competencias establecidas en el Artículo 26 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas que corresponden al Departamento de conformidad con el Decreto 525/1991, de 2 de octubre, y no estén adscritas a ningún otro órgano del Departamento.

**4.2.-** Para el correcto ejercicio de sus funciones y bajo su superior dirección, el Consejero de Urbanismo y Vivienda estará asistido técnica y políticamente por el Gabinete de Apoyo, integrado por los Asesores y demás personal de confianza por él designados.

**4.3.-** Para el correcto desarrollo de las funciones encomendadas, los órganos del Departamento prestarán a los miembros del Gabinete la información y el apoyo que, en cada caso, necesiten.

##### **Artículo 5.-** Viceconsejeros.

Dentro de sus respectivas áreas de actuación, los Viceconsejeros del Departamento de Urbanismo y Vivienda, bajo la dirección del Consejero, en base a lo dispuesto en el artículo 30 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, tienen atribuidas las siguientes competencias:

a) La dirección, coordinación, impulso y supervisión de las actuaciones de la Viceconsejería y de los Organos dependientes de la misma.

b) La programación de las actividades de la Viceconsejería.

c) Elaborar, en su caso, y elevar al Consejero los proyectos de disposiciones generales en materia propia de sus áreas de actuación.

d) Proponer al Consejero las resoluciones que estimen procedentes en los asuntos que sean de su competencia y cuya tramitación corresponda a la Viceconsejería.

e) Dictar circulares e instrucciones necesarias, dirigidas a los Servicios dependientes de la Viceconsejería, en orden a su correcto funcionamiento.

f) Actuar como órgano de comunicación con los demás Departamentos y con los Organismos y Entidades que tengan relación con la Viceconsejería.

g) Inspeccionar y controlar el funcionamiento de los Centros Directivos y Organismos dependientes de la Viceconsejería.

h) Las autorizaciones de gasto precisas para la tramitación de expedientes competencia de la Viceconsejería, salvo las correspondientes a gastos de carácter plurianual que superen los doscientos millones y las precisas para tramitar expedientes de ejecución de obras y suministros, cuyos presupuestos, excluida la parte impositiva correspondiente, superen los cien millones de pesetas y veinticinco millones de pesetas respectivamente, así como las referentes a los expedientes de asistencia técnica, arrendamientos de servicios, trabajos específicos y concretos no habituales, y cualesquiera otros de carácter administrativo especial o privado administrativo, cuyo presupuesto, excluida asimismo la parte impositiva correspondiente, sea superior a veinticinco millones de pesetas, en cuyo caso las autorizaciones corresponderán al Consejero del Departamento.

i) Las modificaciones presupuestarias cuya autorización esté atribuida al Departamento y correspondan al ámbito de la Viceconsejería.

j) Todas las demás competencias, facultades, prerro-

kieten gainerako eskuduntzak, ahalmenak, prerrogati-  
bak eta egitekoak gauzatzea.

#### 6. atala.- Zuzendariak.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Lege-  
ko 31. atalean xedatutakoarekin bat etorritik, Zuzenda-  
riek Antolaketarako Unitate baten zuzendaritza hartu-  
ko dute euren ardurapean, eta honako eskuduntza  
hauek dituzte egotzita:

a) Dagokion Sailordetzatik hartutako aginduekin  
bat eginik, Zuzendaritzaren ihardunak zuzendu, koor-  
dinatu eta bultzatzea eta horien jarraipena egitea.

b) Zuzendaritzaren zerbitzuak eta lan sistemak anto-  
latzea, gai honetan Zerbitzu Zuzendaritzari emandako  
eskuduntza orokorren kaltetan joan gabe.

c) Bere eskuduntzakoak izan daitezen gaietan bidez-  
ko eritzitako erabakiak Sailburuordeari proposatzea,  
edo Zerbitzu Zuzendaritzaren kasuan Sailburuari,  
Zuzendaritzak izapidetzekoak badira.

d) Kontratazio gaietan kontratazio-organo izaera  
dute Zuzendariak, indarrean dagoen ordenamendu  
juridikoak egotzitako ahalmenen eta mugen barruan.

e) Ordenamendu Juridikoak berariz egotzitakoak  
edo, Jaurlaritzako Zuzendariari orokorrean egotzitako-  
ak direlako, orokortzat hartzen direnak.

#### HIRUGARREN SAILATALA: ZERBITZU ZUZENDARITZA

#### 7. atala.- Egitekoak eta egitura.

7.1.- Zerbitzu Zuzendaritzari, Saileko Sailburuaren  
goren zuzendaritzapean, honako hauek dagozkie:

a) Saileko Sailburuari sorospen teknikoa, juridikoa  
eta administratiboa ematea.

b) Saileko organoen arteko harremanak koordina-  
tzea, baita hauek Jaurlaritzako beste organoekin eta  
beste Administrazio edo Entitateekin dituztenak ere.

c) Zuzendaritzari dagozkion Aurrekontuak eta Saila-  
ren Aurrekontuko I. eta II. Atalburuak prestatzea eta  
horien jarraipena egitea.

d) Sailaren Aurrekonturako Aurreproiektua presta-  
tzeko behar den koordinazioa eta Aurrekontuaren  
jarraipena eta ikuskapena egitea, etengabeko informa-  
zio eta ebaluaketa sistemak ezarriz eta horiei eutsiz.

e) Saileko Kontratazio Mahaiaren eskuduntzakoak  
diren kontratazio espedienteak izapidetzea.

f) Sailaren aholkularitza juridikoa, beste Zuzendari-  
tzekin koordinatuta.

g) Sailetik sortutako arauteria koordinatu, prestatu,  
kasua bada, eta kontrolatzea.

h) Sailean sor daitezkeen arazoei buruzko azterlanak  
eta txostenak egitea, beste Zuzendaritza batzuri egotzi  
gabekoak badira.

i) Saileko langilegoaren plangintza, kontrola eta  
kudeaketa koordinatzea, Euskal Funtzio Publikoari  
buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 10.1 atalean

gaitivas y funciones que les atribuyan las disposiciones  
legales en vigor.

#### Artículo 6.- Directores.

Los Directores, conforme a lo dispuesto en el artícu-  
lo 31 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno,  
asumen la dirección de una Unidad Organizativa, y tie-  
nen atribuidas las siguientes competencias:

a) Dirección, coordinación, impulso y seguimiento  
de las actuaciones de la Dirección, de conformidad con  
las instrucciones recibidas de la Viceconsejería corres-  
pondiente.

b) La organización de los servicios y de los sistemas  
de trabajo de la Dirección, sin perjuicio de las compe-  
tencias generales atribuidas en esta materia a la Direc-  
ción de Servicios.

c) Proponer al Viceconsejero, o al Consejero en el  
caso de la Dirección de Servicios, las resoluciones que  
estimen procedentes en los asuntos que sean de su  
competencia y cuya tramitación corresponda a la  
Dirección.

d) En materia de contratación ostentan la condición  
de órgano de contratación, con las facultades y limita-  
ciones que el ordenamiento jurídico vigente atribuye a  
los mismos.

e) Las que les atribuyan expresamente el ordena-  
miento jurídico o tengan el carácter de comunes, por  
venir atribuidas con carácter general a los Directores  
del Gobierno.

#### SECCION TERCERA: LA DIRECCION DE SERVICIOS.

#### Artículo 7.- Funciones y Estructura.

7.1.- A la Dirección de Servicios, bajo la superior  
dirección del Consejero del Departamento, le corres-  
ponden:

a) La asistencia técnico-jurídica y administrativa al  
Consejero del Departamento.

b) La coordinación de las relaciones entre los distin-  
tos órganos del Departamento, y de éstos con el resto  
del Gobierno, y en su caso con otras Administraciones  
o Entidades.

c) Elaboración y seguimiento de los Presupuestos  
correspondientes a la Dirección, así como de los Capí-  
tulos I y II del Presupuesto del Departamento.

d) La coordinación de la elaboración del Antepro-  
yecto de Presupuesto del Departamento y el seguimien-  
to y supervisión del mismo, estableciendo y manteni-  
endo los correspondientes sistemas de información y eva-  
luación continuada.

e) La tramitación de los expedientes de contrata-  
ción que sean competencia de la Mesa de Contratación  
del Departamento.

f) La asesoría jurídica del Departamento, en coordi-  
nación con las demás Direcciones.

g) La coordinación, elaboración, en su caso y con-  
trol de la normativa emanada del Departamento.

h) Realización de estudios e informes en asuntos  
que se susciten en el Departamento, cuando no estén  
atribuidos a otras Direcciones.

i) La coordinación de la planificación, control y ges-  
tión en materia del personal del Departamento, siendo  
el órgano competente para el ejercicio de las funciones

jasotako egitekoak burutzeko organo eskuduna delarik.

j) Saileko zerbitzu orokorrak antolatzea eta administrazioa, baita Sailordetzen, Zuzendaritzen eta Lurralde Ordezkaritzen lan sistema eta metodoak koordinatzea ere.

k) Plangintza, Antolaketa eta Informatikarako Bartzorde Teknikoak eta Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko Antolaketa eta Sistemen Zuzendaritzak dituzten eskuduntzen kaltetan izan gabe, Sailaren informatika aplikazioak koordinatu eta kudeatzea.

l) Saileko Erregistro Nagusia kudeatzea.

ll) Euskal Autonomi Elkarteko Hiri-Jabegoaren Bazkunde Ofizialei buruzko abenduaren 27ko 312/1988 Dekretuaren indarrez Sail honi egotzitako egitekoak.

m) Indarrean dagoen Ordenamendu Juridikoak egotzitako egiteko guztiak.

7.2.- Egiteko guzti horiek betetzeko, honako Zerbitzuetan egituratzen da Zerbitzu Zuzendaritza:

a) Administrazio eta Finantza Zerbitzua.

b) Langilego, Antolaketa eta Arazo Orokorretarako Zerbitzua.

c) Lege Aholkularitzarako Zerbitzua.

d) Kontratazio Zerbitzua.

7.3.- Maiatzaren 26ko 205/1987 Dekretuz sortutako Kontratazio Mahaia, bat bera Garraio eta Herrilan Sailerako eta Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailerako, Hirigintza eta Etxebizitza Sailaren ihardun-arloari dagokionez, Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita gelditzen da, aipatu Dekretuak egotzitako eskuduntzak gauzatzeko.

## II. ATALBURUA

### SAILORDETZAK

#### LEHENENGO SAILATALA: ETXEBIZITZA ETA ARKITEKTURA SAILORDETTZA

##### 8. atala.- Egitekoak.

Etxebizitza eta Arkitektura Sailordetzak, Saileko Sailburuaren goren zuzendaritzapean, honako ihardun-arloak zuzendu eta koordinatzen ditu:

a) Arkitektura.

b) Etxebizitza.

##### 9. atala.- Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza.

9.1.- Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzari honako egitekoak betetzea dagokio:

a) Zuzendaritzari dagokion Aurrekontua prestatzea eta berorren jarraipena egitea.

b) Artezko sustapeneko etxebizitza sozialak eraikitzeke plangintza eta programazioa; lur eta hirigintza gaietako ihardunak Hirigintza eta Lurralde Antolaketa Sailordetzarekin koordinatuta egingo dira.

c) Laguntza teknikoa emango du artezko sustapeneko etxebizitza sozialen proiektuak idazteko eta horietako obrak zuzentzeko.

d) Artezko sustapeneko etxebizitza sozialen obreta-

recogidas en el artículo 10.1 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

j) La organización y administración de los servicios generales del Departamento, así como la coordinación de los sistemas y métodos de trabajo de las Viceconsejerías, Direcciones y Delegaciones Territoriales.

k) La coordinación y gestión de las aplicaciones informáticas del Departamento, sin perjuicio de las competencias de la Comisión Técnica de Planificación, Organización e Informática y de la Dirección de Organización y Sistemas del Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

l) La gestión del Registro general del Departamento.

ll) Las funciones atribuidas a este Departamento en virtud del Decreto 312/1988, de 27 de diciembre, sobre las Camaras Oficiales de la Propiedad Urbana del País Vasco.

m) Aquellas funciones que le atribuya el Ordenamiento Jurídico vigente.

7.2.- Para el desempeño de estas funciones, la Dirección de Servicios se estructura en los siguientes Servicios:

a) Servicio Administrativo Financiero.

b) Servicio de Personal, Organización y Asuntos Generales.

c) Servicio de Asesoría Jurídica.

d) Servicio de Contratación.

7.3.- La Mesa de Contratación creada por Decreto 205/1987, de 26 de mayo, común para los Departamentos de Transportes y Obras Públicas y de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, queda adscrita, en el área de actuación del Departamento de Urbanismo y Vivienda, a la Dirección de Servicios, ejercitando las competencias que el citado Decreto le atribuye.

## CAPITULO II

### VICECONSEJERIAS

#### SECCION PRIMERA: VICECONSEJERIA DE VIVIENDA Y ARQUITECTURA.

##### Artículo 8.- Funciones.

La Viceconsejería de Vivienda y Arquitectura, bajo la superior dirección del Consejero del Departamento, dirige y coordina las siguientes áreas de actuación:

a) Arquitectura.

b) Vivienda.

##### Artículo 9.- Dirección de Vivienda y Arquitectura.

9.1.- Corresponde a la Dirección de Vivienda y Arquitectura el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Elaboración y seguimiento del Presupuesto correspondiente a su Dirección.

b) Planificación y programación de la construcción de viviendas sociales de promoción directa, coordinando con la Viceconsejería de Urbanismo y Ordenación del Territorio, las actuaciones en materia de suelo y urbanización.

c) El apoyo técnico en la redacción de proyectos y en las direcciones de obras en la promoción directa de viviendas sociales.

d) La supervisión de proyectos, inspección técnica y

rako proiektuen ikuskapena, obren kuskarritza tekniko eta obretako egiaztagirien kontrola.

e) Artezko sustapeneko etxebizitza sozialem obrak hartzearen kontrol teknikoa.

f) Eraikintzaren arazoei buruzko azterlana, ebaluaketa eta kontrola, etxebizitzaren eraiketan eta hirigintza obretan eraikuntza kalitatea sustatzea eta, era berean, eraiketari eta eraikuntza kalitateari buruzko gaitan araugintzako proiektuak prestatzea.

g) Etxebizitzaren eremutik kanpo Arkitektura mailako berezitasuna duten eraikinen birgaikuntza.

h) Edozein ondare eragiketari loturik dauden higikaitzen ebaluaketa teknikoa egitea eta, alde teknikoari dagokionez, Autonomi Elkartearen ondasun higikaitzen ondare-inbentarioa prestatzen lankidetzara eskaintzea, kasu bietan, Ogasun eta Finantza Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak eskatuta.

i) Eraikitako Ondarearen Birgaikuntzarako oinarri teknikoak finkatzea.

j) Proiektuen ikuskaketa egiteko berariazko zerbitzurik ez daukaten Eusko Jaurlaritzako Sail bati baino gehiagori dagozkien eraiketa obrak hartzearen kontrol teknikoa, beroiek eskatuta denean, eta Lehendakaria, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailari aintz sailetarako eraikinei buruz dagozkion eskuduntzen kaltetan joan gabe.

k) Urtarrilaren 23ko 11/1990 Dekretuarekin bat eginik, laborategietako egiaztapenak izapidetzea, ematea edo berritzea.

l) Indarrean dagoen Ordenamendu Juridikoak ematen dizkion guztiak.

9.2.- Egiteko guzti horiek burutzeko, Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritza honako Zerbitzuetan egituratzen da:

a) Etxebizitza Sozialen Artezko Sustapenerako Zerbitzua.

b) Proiektu eta Obretarako Zerbitzua.

c) Eraikuntzari buruzko Araugintza eta Kalitate Kontrolerako Zerbitzua.

d) Proiektuen Ikuskaketa Zerbitzua.

10. atala.- Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritza.

10.1.- Finantza Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritzari honako egiteko hauek dagozkie:

a) Bere eskuduntzen eremu barruan etxebizitza gaitako ihardunen plangintza eta programazioa.

b) Etxebizitza gaitan, Sailaren Aurrekontuak prestatzea eta hauen jarraipena egitea.

c) Titularitate publikoko etxebizitzaren administrazio eta kudeaketa.

d) Sail honek etxebizitzak sustatzeko egindako lanaren ekonomi, finantza eta administrazio kudeaketa.

e) Sailak daraman etxebizitzetarako politikaren prozesuetan eragina duten Hitzarmenak eta arauak prestatzea eta sorospen juridikoa ematea.

f) Indarrean dagoen Ordenamendu Juridikoak egotzen dizkion guztiak.

10.2.- Egiteko guzti horiek burutzeko, honako Zer-

control de certificaciones de las obras de promoción directa de viviendas sociales.

e) El control técnico de las recepciones de las obras de promoción directa de viviendas sociales.

f) Estudio, evaluación y control de la problemática de la edificación, fomento de la calidad constructiva en la edificación de viviendas y obras de urbanización, así como la elaboración de proyectos de normativa en materia de edificación y calidad en la construcción.

g) Rehabilitación de edificios de singularidad arquitectónica fuera del ámbito de la vivienda.

h) La evaluación técnica de los inmuebles sujetos a cualesquiera operaciones patrimoniales, además de la colaboración en la elaboración, en su fase técnica, del inventario patrimonial de bienes inmuebles de la Comunidad Autónoma, a requerimiento, en ambos casos, de la Dirección de Patrimonio y Contratación del Departamento de Hacienda y Finanzas.

i) Fijar bases técnicas para la Rehabilitación del Patrimonio Edificado.

j) El control técnico de las recepciones de las obras de edificación que afecten a los distintos Departamentos del Gobierno Vasco, que no cuenten con un servicio específico de supervisión de proyectos, y a solicitud de los mismos, sin perjuicio de las competencias que en materia de edificios multidepartamentales corresponden al Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autónomo.

k) La tramitación, concesión o renovación de acreditaciones de laboratorios de conformidad con el Decreto 11/1990, de 23 de Enero.

l) Y todas aquellas que le atribuya el Ordenamiento Jurídico vigente.

9.2.- Para el desempeño de estas funciones, la Dirección de Vivienda y Arquitectura se estructura en los siguientes Servicios:

a) Servicio de Promoción Directa de Viviendas Sociales.

b) Servicio de Proyectos y Obras.

c) Servicio de Normativa y Control de Calidad en la Edificación.

d) Servicio de Supervisión de Proyectos.

Artículo 10.- Dirección de Planificación y Gestión Financiera.

10.1.- A la Dirección de Planificación y Gestión Financiera le corresponde:

a) Planificación y programación de las actuaciones en materia de vivienda dentro del ámbito de su competencia.

b) Elaboración y seguimiento de los Presupuestos del Departamento en materia de vivienda.

c) La administración y gestión de las viviendas de titularidad pública.

d) Gestión económico financiera y administrativa en el ámbito de la promoción de viviendas del Departamento.

e) Asistencia jurídica y elaboración de normativa y Convenios que afectan a los diferentes procesos de la política de vivienda del Departamento.

f) Y todas aquellas que le atribuya el Ordenamiento Jurídico vigente.

10.2.- Para el desempeño de estas funciones, la

bitzuetan egituratzen da Finantzal Plangintza eta Kudeaketarako Zuzendaritza:

- a) Azterlan, Plangintza eta Aurrekontuetarako Zerbitzua.
- b) Sustapen Pribaturako Zerbitzua.
- c) Ondarearen Administrazioarako Zerbitzua.
- d) Zerbitzu Juridiko Administratiboa.

**BIGARREN SAILATALA: HIRIGINTZA  
ETA LURRALDE ANTOLAKETA SAILORDETZA**

**11. atala. - Egitekoak.**

Hirigintza eta Lurralde Antolaketa Sailordetzak, Sailko Sailburuaren goren zuzendaritzapean, honako ihardun-arloak zuzendu eta koordinatzen ditu:

- a) Hirigintza.
- b) Lurraldea eta itsasertzak antolatzea.

**12. atala. - Hirigintza Zuzendaritza.**

12.1.- Hirigintza Zuzendaritzari honako egiteko hauek dagozkio:

a) Zuzendaritzari dagokion Aurrekontua prestatzea eta berorren jarraipena egitea.

b) Hiri Antolaketarako araugintzazko proiektuak prestatzea.

c) Hiri Antolaketarako tresnak prestatu, koordinatu eta kontrolatzea eta Jaurilaritzak dituen eskuduntzen eremuaren barruan horiek gauzatzeko behar den kudeaketa egitea, beste Sailen sektore mailako ihardunetarako beharrezkoak direnak barne hartuta.

d) Sustapen publikoko lurra lortzeko eta Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Gehigarritzako Xedapenetatik Bigarrenaren arabera sortutako ihardunak burutzeko beharrezko diren beste lurrak lortzeko kudeaketa egitea, Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzarekin koordinatuta.

e) Sustapen publikoko poligonoen urbanizazioa egitea.

f) Sailari atxikitako titularitate publikoko lurraren administrazioa.

g) Sailak izapidetatuko desjabetzapen espedientei darizkien balio justuak onartzea.

h) Euskadiko Ondeari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legearen Gehigarritzako Xedapenetatik Bigarrenarekin bat eginik, Sail honi dagozkion ahalmenez baliatuz, Euskal Atunomi Elkarteko Administrazioak enajenatu dituen partzelei buruz, salmenta eta erosketasalmentarako eskaintza-eskiriturak ematea eta, hala izanez gero, aipatu eskitura horietan ezarritako baldintzak indargabetzea eta hipotekak eratzea, aldatzea, beste batetarako uztea eta indargabetzea.

Halaber, Hirigintza eta Etxebizitza Sailburuak lurraren sustapen publikoari buruzko gaitan hartutako erabakien ondorioz sortutako lege egoerak formalizatzeko beharrezko izan daitezken eskitura guztiak ematea ere Zuzendaritza honi dagozkie.

i) Indarrean dagoen Ordenamendu Juridikoak egotez ditzkion guztiak.

12.2.- Egiteko guzti horiek burutzeko, honako Zerbitzuetan egituratzen da Hirigintza Zuzendaritza:

Dirección de Planificación y Gestión Financiera se estructura en los siguientes Servicios:

- a) Servicio de Estudios, Planificación y Presupuestos.
- b) Servicio de Promoción Privada.
- c) Servicio de Administración del Patrimonio.
- d) Servicio Jurídico Administrativo.

**SECCION SEGUNDA: VICECONSEJERIA DE URBANISMO  
Y ORDENACION DEL TERRITORIO**

**Artículo 11. - Funciones.**

La Viceconsejería de Urbanismo y Ordenación del Territorio, bajo la superior dirección del Consejero del Departamento, dirige y coordina las siguientes áreas de actuación:

- a) Urbanismo.
- b) Ordenación del Territorio y del Litoral.

**Artículo 12. - Dirección de Urbanismo.**

12.1.- A la Dirección de Urbanismo le corresponde:

a) Elaboración y seguimiento del Presupuesto correspondiente a su Dirección.

b) La elaboración de proyectos normativos en materia de Ordenación Urbana.

c) La elaboración, coordinación y control de los instrumentos de Ordenación Urbana y la gestión de su ejecución en el ámbito de las competencias del Gobierno, incluidos los precisos para las actuaciones sectoriales de otros Departamentos.

d) La gestión para la obtención de suelo de promoción pública y de aquellos otros necesarios para las actuaciones derivadas de la Disposición Adicional Segunda de la Ley de Patrimonio de Euskadi, en coordinación con la Dirección de Vivienda y Arquitectura.

e) La realización de la urbanización de los polígonos de promoción pública.

f) La administración de suelo de titularidad pública adscrito al Departamento.

g) La aprobación de los justiprecios derivados de los expedientes expropiatorios, tramitados por el Departamento.

h) El otorgamiento de escrituras de oferta de venta, compra-venta, en su caso, cancelación de condiciones impuestas en las citadas escrituras y constitución, modificación, proposición y cancelación de hipotecas sobre parcelas enajenadas por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en aplicación de las facultades que correspondan a este Departamento, de acuerdo, con la Disposición Adicional Segunda de la Ley 14/1983, de 27 de Julio, sobre Patrimonio de Euskadi.

Igualmente corresponde, el otorgamiento de cuantas otras escrituras sean necesarias para la formalización de las situaciones jurídicas originadas como consecuencia de las resoluciones adoptadas por el Consejero de Urbanismo y Vivienda en materia de promoción pública de suelo.

i) Y todas aquellas que le atribuya el Ordenamiento Jurídico vigente.

12.2.- Para el desempeño de estas funciones, la Dirección de Urbanismo se estructura en los siguientes Servicios:

- a) Lurraren Kudeaketarako Zerbitzua.
- b) Aurrekontu eta Kontratazio Zerbitzua.

**13. atala.** - Lurralde Antolaketa Zuzendaritza.

**13.1.** - Lurralde Antolaketa Zuzendaritzari honako egiteko hauek dagozkie:

a) Zuzendaritzari dagokion Aurrekontua prestatzea eta berorren jarraipena egitea.

b) Lurralde Antolaketakarako eta Hirigintzarako tresnei buruzko txostenak egitea, Euskal Autonomi Elkarteko Lurralde Antolaketakarako Batzordearen eta Lurralde Antolaketakarako Aholku Batzordearen eremuaren barruan.

c) Lurralde Antolaketa gaiei buruzko araugintzazko proiektuak prestatzea.

d) Lurralde eta Itsasertzen Antolaketakarako tresnak prestatu, koordinatu eta kontrolatzea eta Jaurlaritzak dituen eskuduntzen eremuaren barruan horiek gauzatzeko behar den kudeaketa egitea, beste Sailen sektore mailako ihardunetarako beharrezkoak direnak barne hartuta.

e) Maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26. atalak aipatzen dituen desjabetze espedienteen eraginpean gertatzen diren ondasun eta eskubideez presaz jabetzeko deklarazioari buruz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartu behar dituen akordio proposamenak prestatzea.

f) Lurraldea antolatzeko, Euskal Autonomi Elkarteko lurraldeetako datu baseak sortzea eta kudeatzea, Administrazioako beste Organo batzuek dituzten informatika alorreko eskuduntzen esparruan.

g) Euskal Autonomi Elkarteko Instituzioek egin beharreko kartografiarako, araugintzazko proiektuak eta kartografia sortzeko oinarri-arauak prestatzea, baita Jaurlaritzak daukan eskuduntzez baliatzeko beharrezko den kartografiarako ere.

h) Azpiegitura kartografikoari eusteko kontrola.

i) Kartografiari buruzko koordinazioa Euskal Autonomi Elkarteko beste instituzioekin.

j) Indarrean dagoen Ordenamendu Juridikoak egotzen dizkion guztiak.

**13.2.** - Egiteko guzti horiek burutzeko, honako Zerbitzuetan egituratzen da Lurralde Antolaketa Zuzendaritza:

a) Lurralde Antolaketa eta Plangintza Zerbitzua.

b) Lurralde Informazioarako Zerbitzua.

### III. ATALBURUA

#### LURRALDE ORDEZKARITZAK

**14. atala.** - Egitekoak.

Egitura organikoari dagokionez, Sailburuaren agintzapean eta, egitekoei dagokienez, Zuzendari bakoitzaren agintzapean daudela, Ordezkariei, bakoitzari bere Lurralde Historikoaren eremuan, ondorengo egiteko hauek egotzi zaizkie:

a) Hirigintza eta Etxebizitza Sailari egotzi zaizkion eskuduntzei dagozkienetan, legeak eta xedapenak bete daitezaren ardura izatea.

a) Servicio de Gestión del Suelo.

b) Servicio de Presupuestos y Contratación.

**Artículo 13.** - Dirección de Ordenación del Territorio.

**13.1.** - A la Dirección de Ordenación del Territorio le corresponde:

a) Elaboración y seguimiento del Presupuesto correspondiente a su Dirección.

b) La elaboración de informes de los instrumentos de Ordenación del Territorio y Urbanismo, en el marco de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y del Consejo Asesor de Política Territorial.

c) La elaboración de proyectos normativos en materia de Ordenación del Territorio.

d) La elaboración, coordinación y control de los instrumentos de Ordenación del Territorio y del Litoral y la gestión de su ejecución, en el ámbito de las competencias del Gobierno, incluidos los precisos para las actuaciones sectoriales de otros Departamentos.

e) La elaboración de propuesta de acuerdo, por el Consejo de Gobierno, relativo a la declaración de urgencia de la ocupación de bienes y derechos afectados en los expedientes expropiatorios, a los que se refiere el art. 26 de la Ley 4/1990 de 31 de Mayo.

f) La creación y gestión, en el marco de las competencias de informática que ostentan otros Organos de la Administración, de bases de datos territoriales de la Comunidad Autónoma para la Ordenación del Territorio.

g) Elaboración de proyectos normativos y bases de creación de la cartografía a realizar por las instituciones de la Comunidad Autónoma, así como de la cartografía precisa para el ejercicio de las competencias del Gobierno.

h) Control de mantenimiento de la infraestructura cartográfica.

i) Coordinación cartográfica con las demás instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

j) Y todas aquellas que le atribuya el Ordenamiento Jurídico vigente.

**13.2.** - Para el desempeño de estas funciones, la Dirección de Ordenación del Territorio se estructura en los siguientes Servicios:

a) Servicio de Ordenación Territorial y Planeamiento.

b) Servicio de Información Territorial.

### CAPITULO III

#### DELEGACIONES TERRITORIALES

**Artículo 14.** - Funciones.

Bajo la dependencia orgánica del Consejero y funcional de los Directores respectivos, los Delegados, en el ámbito del respectivo Territorio Histórico, tienen atribuidas las siguientes funciones:

a) Velar por el cumplimiento de las leyes y disposiciones en lo que se refiere a las competencias atribuidas al Departamento de Urbanismo y Vivienda.



b) Ordezkaritzako zerbitzu orokorrak administratzea.

c) Ordezkaritza osatzen duten dependentzia eta organoen iharduerak koordinatzea.

d) Indarrean dauden gainerako xedapenek ematen dizkieten gainerako ahalmen, prerrogatiba eta egitekoak gauzatzea.

#### 15. atala.- Egitura.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak honako zerbitzu hauetan egituratzen dira:

a) Lurralde Idazkaritza.

b) Hirigintza.

c) Lurralde Antolaketa.

d) Etxebizitza Sozialen Artezko Sustapena.

e) Sustapen Pribatua.

#### 16. atala.- Egitekoak.

16.1.- Berariaz agindu dakizkiekeen egitekoen gain, hauek dagozkie Lurralde Idazkaritzei:

a) Ordezkaritzako beharren azterlana eta Aurrekontu dirusarreraren eta gastuen egoeren proposamenak prestatzea.

b) Barne erregimenari eta kreditu kudeaketari buruzko gai guztien ikuskaketa, kudeaketa eta proposamenak egitea eta informe tekniko-administratiboak ematea.

c) Ordezkaritzako espedienteak eta agiritzak nagusia zaintzea eta artxibatzea, orokorrean egiaztagiria ematea, agiriak erkatzea eta, hala dagokionean, Administrazio Organoetara eta epaitegi instantzietara espedientek bidaltzea.

d) Lurralde Ordezkaritari laguntza ematea, beronek agindutako azterlanak prestatuz.

e) Berariaz beste unitate edo ordezkoko zerbitzuei ematen ez zaizkien egiteko eta gai guztiak.

16.2.- Ordezkaritza bakoitzeko beste Zerbitzuei dagozkie, Ordezkaritzari egotzitako espedienteak instruitzea, izapidetzea, informatzea eta, hala gerta dadi-nean, erabaki proposamenak egitea, euren eskuduntzen araberako gaietan.

#### GEHIGARRIZKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.*- Hirigintza eta Etxebizitza Saileko Sailburuordeek, Dekretu honek egozten dizkien eskuduntzez baliatzea, euren menpeko Zuzendarien esku utzi ditzakete. Zuzendariak, bestalde, Lurralde Ordezkairen esku utz dezakete euren eskuduntzez baliatzea.

*Bigarrena.*- Sailburuoreek, Zuzendariak eta Lurralde Ordezkariek, kanpoan izan, gaisorik egon edo lanpostua hutsik lagatzen badute, honako arauak jarraituko dira ordezkotzak egiteko:

a) Sailburuordeei egotzitako eskuduntzak eta egitekoak, berorien menpeko Zuzendariak beteko dituzte, Dekretu honetan agertzen den hurrenkeraren arabera.

b) Zuzendariak egotzitako eskuduntzak eta egitekoak, bakoitzaren Sailburuordeak beteko ditu.

c) Aurreko idaztietan esandakoa horrela izan

b) Administrar los servicios generales de la Delegación.

c) Coordinar las actividades de las dependencias y órganos que integran la Delegación.

d) Ejercer todas las demás facultades, prerrogativas y funciones que les atribuyan las demás disposiciones en vigor.

#### Artículo 15.- Estructura.

Las Delegaciones Territoriales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, se estructuran en los siguientes servicios:

a) Secretaría Territorial.

b) Urbanismo.

c) Ordenación del Territorio.

d) Promoción Directa de Viviendas Sociales.

e) Promoción Privada.

#### Artículo 16.- Funciones.

16.1.- A las Secretarías Territoriales, les corresponderán, además de las funciones que se les puedan asignar específicamente:

a) El estudio de necesidades y la elaboración de las propuestas de los estados de ingresos y gastos del Presupuesto de la Delegación.

b) La supervisión, gestión y propuesta de todos los asuntos referentes a régimen interno y gestión de créditos, y la emisión de informes de carácter técnico-administrativo.

c) La custodia y archivo de expedientes, y de la documentación general de la Delegación, cotejado de documentos, expedición de certificaciones en general y remisión de expedientes a Organos Administrativos o instancias judiciales, cuando proceda.

d) La asistencia al Delegado Territorial elaborando los estudios que éste encomiende.

e) Todas aquellas funciones y asuntos que no estén específicamente atribuidas a otras unidades o servicios periféricos.

16.2.- Al resto de los Servicios de cada Delegación, les corresponde las funciones de instrucción, tramitación, información y formulación de propuestas de resolución, en su caso, de los expedientes atribuidos a la Delegación, relativos a las materias de su competencia.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*- Los Viceconsejeros del Departamento de Urbanismo y Vivienda podrán delegar el ejercicio de las competencias que el presente Decreto les atribuye, en los Directores que de ellos dependan. Los Directores podrán delegar el ejercicio de sus competencias en los Delegados Territoriales.

*Segunda.*- En los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de los Viceconsejeros, Directores y Delegados Territoriales, se seguirán las siguientes reglas de suplencia:

a) Las competencias y funciones atribuidas a los Viceconsejeros serán ejercidas por los Directores de ellos dependientes por el orden que aparezcan en el presente Decreto.

b) Las competencias y funciones atribuidas a los Directores serán ejercidas por los Viceconsejeros respectivos.

c) No obstante lo dispuesto en los párrafos anterior-

arren, Sailburuordeen eta Zuzendarien ordezkotza, ezarritako erizpideen arabera barik, beste era batera egitea agindu dezake Sailburuak.

d) Zerbitzu Zuzendariaren eta Lurralde Ordezka-rien ordezkotza Sailburuak, kasu bakoitzean agindu dezan eran egingo da.

#### INDARGABETZE XEDAPENA

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren egitu-ria organikoa ezartzen duen uztailaren 23ko 444/1991 Dekretua indargabeturik uzten da, Ingurugiro arloari dagokionean izan ezik.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Dekretu hau garatzeko beharrezko izan daitezkeen xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Hirigintza eta Etxebizitza Sailburuari.

*Bigarrena.*— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizka-ria argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteiz, 1991ko abenduak 10.

Lehendakaria,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hirigintza eta Etxebizitza Sailburua,  
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA.

#### NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3852

AGINDUA, 1991ko abenduaren 9koa, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuarena, 1991/92 kanpainaren barruan behi-hazleak izan ditzaten Euskal Autonomi Elkarteke abeltzainen aldeko diruemendioaren banaketa arautzen duena.

Kontseiluaren ekainaren 5eko 1357/80 Arautegian (EEE), txahalak elikatzen dituzten behien zentsua mantentzearen, diruemendio bat banatzeko erregime-na ezartzen da. Batzordearen maiatzaren 19ko 1244/82 Arautegian (EEE) zehazten dira aplikazio motak.

Laguntzez baliatu ahal izateko, beharrezkoa da, haragitarako diren txahalak haztea xedetzat duen ustiakuntzan, behitalde baten ekoizle eta jabe izatea eta ontzat eman den behi kopuruari eustea sei hilabeteko epealdian zehar.

Halaber, honako baldintza honen pean gelditzen da diruemendioa ematea, hau da, eskabidea egin zen egu-netik hasi eta hamabi hilabeteko epean, ez esnerik eta ez esnekirik ere ez duela saltzen ekoizleak frogatu behar du, ustiakuntzan bertan artez saltzen dena ez dela horretan sartzen.

Esandakoaz aparte, urtean 60.000 kgko edo gutxia-goko ekoizpena izan dezaten ekoizleak, txahalak hazte-ko behientzako laguntzaz baliatu ahal izango dira; hala gertatuz gero, sarigai behien kopurua mugatuko da.

res el Consejero podrá determinar que la suplencia de los Viceconsejeros y Directores se lleve a cabo con distintos criterios a los establecidos.

d) La suplencia del Director de Servicios y Delegados Territoriales se realizará conforme determine el Consejero para cada supuesto.

#### DISPOSICION DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 444/1991, de 23 de Julio, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, a excepción de lo previsto para el área de Medio Ambiente.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Se faculta al Consejero Titular del Departamento de Urbanismo y Vivienda para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

*Segunda.*— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 10 de diciembre de 1991.

El Lehendakari,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Urbanismo y Vivienda,  
JOSE ANTONIO MATURANA PLAZA.

#### DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

3852

ORDEN de 9 de diciembre de 1991, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se instrumenta la concesión de la Prima en beneficio de los Productores de la Comunidad Autónoma del País Vasco que mantengan Vacas Nodrizas durante la Campaña 1991/92.

El Reglamento (CEE) 1357/80, del Consejo, de 5 de junio establece un régimen de prima para el mantenimiento del censo de vacas que amamantan a sus crías. Sus modalidades de aplicación se determinan en el Reglamento (CEE) 1244/82 de la Comisión, de 19 de mayo.

Para acceder a la ayuda es necesario ostentar la condición de productor y poseer un rebaño de vacas en la explotación dedicado a la cría de terneros para la producción de carne y mantener el número de vacas considerado durante un periodo de seis meses.

Asimismo, la concesión de la prima se supeditará a la demostración, por parte del productor, de no vender leche ni productos lácteos durante los doce meses a partir del día de la presentación de la solicitud, con excepción de la venta directa del productor al consumidor en la propia explotación.

No obstante lo expuesto anteriormente, los productores de leche cuya producción anual sea inferior o igual a 60.000 kilogramos podrán beneficiarse de la prima para su ganado de vacas nodrizas, limitándose en este caso, el número de vacas que pueden beneficiarse de la prima.